

AHOZKO LITERATURAREN TRANSMISIOA ESKOLAN

Itziar Zubizarreta

Hitzen arteko harmoniarik gabe, ez dago esaldi ederrik.  
Hitzekin harmonian ibili gabe ere ez.

Lertxundi, A. *Eskarmentuaren paperak*. Alberdania, 2009

- Hizkuntzaren bidez, gizakiak mundua berea egiten du eta bere mende jartzen du.

-Hizkuntzak laguntzen dio gizakiari fenomenoak aztertu eta bideratzen, esperientziak metatzen eta horiek transmititzen.

-Gizakia komunikatzen denean, bere interes eta beharrak adina, jokoak, erritoak, egunero gertatzen direnak adierazten ditu.

*“Gizakiak entzuten ditu gauzak, bere baitan gorde eta eraikitzen ditu. Kantuan hasten da orduan, edota kontari.”*

V. Propp

## DEKORAZIO OLERKIA

Herriak gizaldiz gizaldi gorde ditu testu hauek, zaharrenak seguruenik.

Jolasean aritzeko poesiak dira: Hitz lerroen errepikapena, estilizazioa eta onomatopeia erabiltzen dute teknika gisa.

Euskal gizarteak hauek erabili ditu hurrei gauzak pintatzeko, kantatzeko eta gorputz espresioa egiteko bideak aurkezteko

## OSAGAIAK

Hitzak: zehatzak eta kiribilduak.

Hotsa: erritmodun egitura baten barnean eta doinu jakin batean.

Mugimendua: salto, korri, txingo, eskuak...

Ttun kurrun kuttun, kurrun kuttun kurrun kuttuna;  
run kuttunku run kuttun kuttun kurrun kuttuna.

loooooo

Esanahi jakinik ez duten poemak:

Leloli-relo-leloli-relo

leloa-zarai-leloa.

Dekorazio hutsa da hau: oraingo haur poesiagintzan oso erabilia.

Esan nahi iluna dutenak:

Xirristi-mirristi, gerrena plat,

olio-zopa, kikili salda,

urru, edan edo klik...

Ikimilikiliklik.

Esan nahia eta hitz dekoratiboak tartekatzen dituztenak:

Donostiako Gaztelupeko

sagarduaren gozua;

hantxe edaten ari nintzala

hautsi zitzaidan basua.

Eta kristitin krasketin

arroza krabelin,

basua kristalezkua.

Jolas guzti hauek etxe barnean eta jolasaren lagungarri gisa erabili dira.

Gaur egun, etxeaz gain eskolako testuinguruan sartu behar dira.

Hizkuntzaren lorpen prozesuan lagungarri apartakoak dira.

Hizkuntzaren garapenean paper handi bat jokutzen dute hizkuntzaren hainbat alderdiak  
garatzeko.

0-2 urte bitartean, egunean zehar eguneroko ekintzei lagunduz erabiliko dira eta elkarketa uneetan.

*Begirada bideratzeko sehaskan*

“Maro Marotxu, Eragiozu eskutxuari,  
Behin batarita, behin besteari”

*Eskuen koordinazioa*

“Txalo- txalo- txalo txin. Atoz etxera Mattin,  
Taloa dago kabarran, Mattinen belarrian”

*Trostan aritzeko*

“Arre , arre mandoko,  
bihar Iruñerako,  
Etzi Tolosarako.  
Handik zer ekarriko?  
Zapatak eta gerriko

2-4 urte

Korro jolasak, zotz egiteko jolasak, zenbaki jolasak, kantuak...

Egunero erabiliko dira egitura hauek, jolas giro batean, saio oso laburrak eginez.

Haurren ahotan jarri behar dira, Bakarka errepikatuko dituzte besteen aurrean.

Sekuentziak osatuko dira, baina behin eta berriz errepikatuko dira gustuko jolasak.

Ahozko eta idatzizko adierak erabiliko dira saio atsegin eta laburrak eginez.



## POESIA/JOLASA

Amona mantangorri,  
gorri-gorri.  
Hegoak irekita  
hegan egin.

## AHOZKO JARDUERA

Paperezko amonamantangorri bat egin.  
Sorbalda aginean jartzen zaio bat edo bati. Horrek hegan egingo du eta besteren bat harrapatuko du. Hori izango da amonamantalgorri berria.

## IDATZIZKO JARDUERA

Beste poemekin batera gorde, poesia bilduman.  
Hitzik luzeena aurkitu...  
Irakurketa imintzioak egin, gelan, beste geletan...

5-6-7 urte

Haurren hizkuntzaren garapenak eskatzen ditu baliabide berriak erabiltzea.

Hitzen ebakera, silabak eta sintaxiak kezka desberdinak sortzen dizkio.

Esanahi anitzak ulertzen ditu, ez bakarrik literalak eta umorea garatzen hasiko da.

Genero literario desberdinak dastatzea gustatzen zaio eta hitzak jostailu gisa erabiltzea.

Genero desberdinak nola erabili:

## AHOKORAPILOAK

### Aurkezpena

Ezaguna delako ez dugu aurkezten.

Ahokorapilo bakoitza istori txiki, simple, ahal dela barregarri batean kokatu.

Ea azkar eta nahastu gabe esateko nahiko trebetasuna ote duen ikustea.

Lehendabizi buruz ikasi

### Jolasak

Oso poliki esan , azkarrago, oso azkar.

Txartel idatzietan aurkeztu.

Txartelak trukatu eta nahastuz , ahokorapilo berriak sortu.

Bokal jakin batez ahokorapiloak esan, idatzi eta irakurri.

Sortu diren egitura berri barregarriak erabili istori bitxi txikiak sortzeko,

Istorio celebren bilduma bat sortu.

Haurren arteko diktaketak, txartelak aurrean dituztela, zuzenketak beraien artean antolatu.

## IGARKIZUNAK

Testuingurua sortu:

Aurkezpen formula zuzen batez:

Tipi taki

Tapi tiki

Zer naizen,

Nork daki?

Irteera formula zuzena:

Asmatzen, asmatzen hasia naiz asmatzen.

Zer den asmatu arte errepikatu.

- Igarkizunaren logikari lotu erantzunak.
- Igarkizunean dagoen deskribapen izkutua azpimarratu.
- Pixkanaka baztertu logikari lotzen ez diren erantzunak.
- Pistak luzatu.

Erantzunak arrazonatu arazi igarkizunaren deskribapen mota agerian utziz.

## Igarkizunak jostailu

### Deskribapen jokoak

- Kaxa batean gorderiko objektu txikien deskribapenak irakasleak egin eta haurrek asma dezatela zer den.

- Deskribapenerako erabiliko diren irizpide logiko eta linguistikoak erabaki:
- Objektuaren itxura, forma, kolorea, testura, tamaina...
- Zertarako balio duen, zertan erabiltzen den...
- Zer bezalako den, konparazio motak mailakatu:
  - Honelako tankera du , Hala ere..., baina..., ez da ... ordea.
- Konparazioaren bigarren terminoa desagertu arazi eta metafora hutsean aritu

Igarkizun berriak sortu arazi, sorpresa kaxan erabiliriko pautak erabiliz.

Politak ateratzen direnak idatzi, hizkuntz txukunketa egin ondoren.

Hizkuntz misteriotsua da Igarkizunetan erabiltzen dena.

Saiatu errimak egiten.

## SAIOAK ANTOLATZEN

Ahozkoak :

Saio laburrak egunero, gustuko jolasak eta kantuak erabiliz.

Besteen aurrean jolasak aurkezteko adierazpen saio formalak sortu.

Genero ugari erabili.

Idatzizko saioak: hauek ludiko zentzuari eusten diote:

Ahokorapiloak, egunero ordenatu, hizkiz hizki idatzi, nahastu eta “tranpak” egin...

Irakurketa saioak: testu txikiak, behin eta berriz errepikatzen direnak.

Hitz jokoak egin: hitz handiak, gozoak, zikinak, nazkagarriak...

## IRAKUEKTA TESTU ADIBIDE BATZUK

Zakurrarena egingo duzue.

Bat, bi, hiru, txitxirri!

Otsoarena egingo duzue.

Bat, bi, hiru, txitxirri!

Joakinen ipuina kontatzerik nahi?

-Bai!

-Bazen behin Joakin.

-Galtzetan kaka egin.

-Joxe Juanen ipuina kontatzerik nahi?

-Bai!

-Bazen behin Joxe Juan.

-Taloa jan.

Bazen behin matxinsalto bihurri bat, salto egin ordez brinkoak egiten zituena.  
Horregatik beste guztiak matxinbrinko esaten zioten.

Elefante dotore  
gorbataren ordez lazoa jazten zuena  
elegante